

TORTURA, MEMORIA ETA INPUNITATEA: DEMOKRAZIAREN PARADOXAK ?

Hori zen preseski joanden hilabeteen hiru egunez Pau-e eta Aturri Eskualdeko Unibertsitateak, Varenne Unibertsitate Institutoaren laguntzarekin, Baionan antolatu mintegiaren gai-burua.

Soilik larunbat aratsaldekoaz ariko naiz hemen. Publiko zabalari idekia zen eguna eta tortura zuzenki jasan duten bost biktimeri emana izan da hitza: Jean Salem (Algeriako gerla), Buscarita Roa (Plaza de Mayo-ko amatxi bat), Mourad Benchellali (Guantanamo preso ohia), eta bi euskaldun: Ixone Fernandez eta Joan Mari Torrealdai. Zinez hunkigarriak eta bihotz uragarriak izan dira hauen lekukotasunak, mementorik gorenaren izan delarik Joan Mari Torrealdai-k lehen aldikotz publikoan bere eritasunaren (hezur muinaren minbizia, (bere iritzi) jasan dituen torturen ondorioa) aitortpena egin duenean. Lekukotasunak entzun ondoan, huna Jean-Pierre MASSIAS antolatzaile-buruak atera erakapen nagusiak, hiru pondutan.

1/ Nola asma daiteke justizia egitea gisa hortako intentsitateko krimeneri begira ?

Nola Justiziak esku hartu dezake beren eskubideetan ber-finkatzeko beraien integritatea maila hortaraino urratua eta hain guti errespetatua izan diren presunak ? Krimen ezinago krudeletaz ari gira, eta aldi berean guziz konplexutaz. Alabaina, nortasunaren alderdi guziak dira hunkituak, biziko errealitatearen alderdi guziak: osagarri fisikoa arra-eratu beharrean aurkitzen da, berdin osagarri psikologikoa eta norberaren estimua, errautsia izan den bizi bat arra-eratu beharrean aurkitzen da.

Hortarako lau bide ikusten ditu Louis Joinet Justizia Transizionalaren asmatzaileak:

- **egia:** biktimek gertatu zaiotenaren jakiteko eta jakinarazteko eskubidea dute. Istanbulgo Protokoloa aitzinapen handia da maila hortan: hau da adituek (mediku, abokatu, psikologo, erakunde berezitu...) tortura salaketen ebaluaketa eta baieztapena egiteko bideratu duten metodologia "zientifikoa".

- **erreparazioa:** giza komunitateak erreparazio gutienez sinbolikoa zor du biktimeri.

- **justizia:** borroak eta torturatzailerak epaitu beharrak daude. Hau ezinbesteko eskubidea da. Aldi berean auziak bidezkoa, neurtua eta zuzena izan behar du. Beraiek errespetatu ez dituzten eskubideak ezagutu behar zaizkie; gaitigua zilegiagoa baizik ez da izango.

- **errepikapen-eza:** gizarteari doakio gisa hortako gehiegikeriak berriz ez gertatzeko baldintzak bideratzea. Torturatzailerak komisarietarik kanporatuak izan behar dira, poliziakideen formakuntza erreformatu behar da, egiari sarbidea eman. Torturak bidaiatzen du, hedatzen da. Hau hautsi behar da. Instrumento hauk guziak behar-beharrezkoak dira.

2/ Inpunitate judizialaz arizan gira. Bainan hau, azkenean, inpunitate zerrenda luze baten luzapena besterik ez da: **inpunitate politikoa, inpunitate intelektuala, inpunitate gizartekoia**ren luzapena.

- **Inpunitate politikoa:** ez da sekula ustegabetarik torturatzen. Ez dago tortura antolaturik Estadoaren erantzunkizun zuzenik gabe. Torturatzailerak arrazionalki formatuak dira: des-eraikiak dira ber-eraikiak izaiteko. Aldi berean, inpunitate politikoak Estado gezur zabal baten antolakuntza estaltzen du. Ixone eta Joan Mari-ren kasuan, nun ziren defenditu behar zituztenak (auzitegi-mediku, abokatu, juje...)? Tortura ez da "akzidente" bat demokrazian, bainan bai demokraziaren des-eraiketa bat. Ekintza errotik totalitariora da ! Kontzentrazio zelaiaren murrizketa da: presuna bat umiliatzea bere giza izaitiaz eta irudiaz desjabetzerainokoa. Inpunitate politikoa desegin beharra dago !

- **Inpunitate intelektuala:** elite intelektualen zati batek gaur egun bat egiten du tortura posible dekaldo ideiarekin. Unibertsitateko erakasle batek erakasten du torturatu daitekeela, baina ongi egitekotan, legezko moldean, Juje batek torturatzeko baimena emanaz, ondotik egiaztatu ahal izaiteko ! Hori gibelkada izigarria da ! Eta Frantzian berean torturatzen da ! Burutapen intelektual hori jasan-ezina da ! Alta gero eta komunikabide gehiago dira hau onartzen dutenak, erranez gainera: "*Baina hori ez da tortura ! Hoiek dira bortxaketa fisiko izarizkoak !*"...

- **Inpunitate gizartekoia:** hunen kontra ere borrokatu beharra dago. Torturatzailerak ez dira gaur egun ikusiak gure historiako garai batzuetan bezala. Gizarteek ere, zombaitetan, torturaz hobendun izan daitezke, arrazistak direnean edo matxistak, edota errepresioari eta segurtasunari buruzko diskurtsoak errexkiegi "iresten" dituztenean.

3/ Hori guzia horrela izanik, galdera da: **Justiziak ba ote du oraino zentzurik ?**

"Bai !" erantzuteko gogoia dut. Gutierrez, gure gain hartu beharra daukagu justizia eskakizun hori. Horrek erran nahi du tortura onartezina, jasanezina, pairaezina dela behin eta berriz errepikatu beharra dagola. Nazioarteko Justizi tresna nagusiek unibertsalki debekatzen dute. Eta tortura ez da txarra legez kontrakoa delako, bainan hain xuxen legez kontrakoa da berez txarra delako ! Libertatea eta duintasuna zauritzen ditu ! Torturarekin ez da ausatzen, uko egin behar zaio ! Tortura ez da sekula justifikatua, eta ez da ere eraginkorra ! Tortura erabilia da ixilarazteko, ikaran atxikitzeke, gezurrezko aitortpenak bizkar-gain jartzeko.

Berdin, buru egin behar zaio segurtagarrizko presione sozialari. Terrorismoari demokrazia "gehi" batekin erantzun behar zaio. Terrorismoa, azkenean, demokraziarentzat "test" bat ere bada. Segurtagarrizko erantzuna huts bat besterik ez da.

Ondarrera, Jean-Pierre Massias-ek eskertu ditu hitz-hartzaileak agertu duten etsenplua eta kuraia gatik, gehituz: *"Guharen kuraia eta herritar eginbidera igortzen gaituzue !"* Eta Jean Salem-en hitz baikorra gogoratuz bururatu du: *"Kausa ederren alde borrokatzea agortezinezko zorion iturria da !"*

Peio Ospital
2015-05-04